

## Juanma Bajo Ulloa eta tximeleten tragedia

Juanma Bajo Ulloa gasteztarrak eman du dagoeneko laburmetraia eta zinema amateurretik profesionalismora dagoen salto itzela. Zuzendari gazteak 'Alas de mariposa' ('Tximeleta hegoak') izeneko filmea buruztu zuen atzo Sail Ofizialaren barruan eta gustoko alde batera edo bestera egin, Bajo Ulloaren lanak ez du bederen orain arte erakutsitako indiferentziarik sortu. 'Akixo' eta 'Victorren erresuma-ren' ondoren, tragedia klasiko grekoa ekarri digu gasteztarrak, eta aprobata beretzat da behintzat, zinea egiteko, kamara mugitzeko, haria eramateko eta istorioa kontatzeko erabili duen trebezia ez bait da nolana hikoia.

Bajo Ulloa laburmetraiaren tentazioan erori da, ostera. 'Alas de mariposa' familia tragedia gordina eta iluna da, ama eta alabaren arteko ikusiezina sortutako tragedia. Belaunalditik belaunaldira alabak besterik ez ditu izan familiak eta azkena gaizki hartuko dute. Horregatik baztertu dute mutila jaioko denean. Haurra etsai bihurtuko da neskarentzat, eta zentzu horretan, bizitza osoan hamar liburu baino gutxiago leitu dituela aitortu arren, zor dio zerbait zuzendariak Anton Chejovi, idazlearen 'Arrotza' ipuin dramatikoari batez ere. Haur jaio berria etsaia izango da aurrerantzean neska gaztearentzat eta ordura arte izandako laztan guztiek bere kontra egiten dute.

**LAURA VAQUERO ZORAGARRIA** Juanmak izan du zortirik Laura Vaquero neska-aktorea aurkitzeko orduan. Ana Torrent eta Sonsoles Aranguren antzera, haur honen portaerak eta begiek badute halako magnetismo berezia eta zuzendari ederki askorik profiatu du haren erakargarritasuna. Emakumeak kenzteaz gain estiloa ere ohostu dio nolabait Victor Ericeri, horren poesia falta zaion arren filmeari.

'Alas de mariposa-k' ondo fun-

A. GOSTIN



Bajo Ulloaren filmeak ez zuen behintzat indiferentziarik sortu. CARLOS VILLAGRAN

### Hegoak ebaki banizkion

BEGONA DEL TESO

Juanma Bajo Ulloa domatu nahiko lukete zenbaitzuk. Gaztetxoegia jomen, hurbilegia, nonbait. Gasteztarra eta gaztea izatea ez omen da ondo uztartzen 'Alas de mariposa-k' duen kolore ilun eta gusto gaziarekin. Neri Bitorixetik datorren gaztea, domatu barik, txukundu gabe, zait atsegin. Esan dezala liburu gutxi duela irakurritza eta gutxiago ikusitako filmeak. Esan dezala liburu asko. Eginaren eraginez, denbora, trebezia eta magieroen poderioz ikasiko du aske utzi dituen deabru guztiak bere alde erabiltzen. Momentuz, ondo daude pantailan libre eta aise. Nagusia nor den ikastea, Juanma ahalguztiduna.

## Memoriaren zentsura

Andrew Piddingtonek bi ordu astun Aeta historia freudiano antzua behar izan zituen 'Shuttlecock' pelikulan memoriak bere zentsura propioa daukala eta espian betebeharrak ez ez esatea dela azaltzeko. Zuzendariak berak kasu egingo balio sikera emandako aholkuei, ixilik eta kieto egongo litzateke, eta ez liguke goizko bederatzietan horrelako ariketa primerizo batekin erasorik egingo.

'Shuttlecock' topiko hutsa da hasiera batetik. Zinema klasikoak traidoreak heroi bihurtzen zituen bezala, heroiak traidore egin ditu gaur egungo zinematografiak, dikotomia horri irtenbide originalik emateke. Piddington jaunak ez du araurik apurtu zentzu horretan eta aita heroizat daukan seme honen paradorea pulamenturik gabeko bide arrunta besterik ez da. Aita traizioaren zama-perik bizi da nonbait Portugalen eta bere gogoetak bildu ditu liburu batean argitara eman ahal izateko. Aipatutako semeari eskainiko dio biografia kasualitatez (filme osoan ez bait zaigu argituko zer demontre den eta eskaini dion), eta hark kristore-

A. GOSTIN

#### «Shuttlecock»

**Zuzendaria:** Andrew Piddington  
**Aktoreak:** Alan Bates, Lambert Wilson, Kenneth Haigh, Jill Meagher.  
**Produktzioa:** Erresuma Batua

nak eta bi egingo ditu aitaren benetako bizimodua eta jokabidea azaltzeko, Bigarren Mundu Gerran gertatu zitzaiona jakiteko batez ere.

#### AITA-SEMEEN ARTEKO FILMEA?

Aita-semeen arteko filmea da, erruari buruzkoa baino», adierazi zuen atzo Andrew Piddington zuzendariak. Semeak berak ere aitortuko du behin baino gehiagotan, liburu batean aitararen nortasuna aurkituko duela, hantxe daudela haren jarreraren gakoak. Baina gako hauek flash back amaitezinen bidez azalduko zaizkigu, egun edozein zine eskolako ikasle dakizkien truko pobreak erabiliz eta anekdota hu-

tsalena bilduz atzera egindako begirada horietan. Flash backei laguntzeko hamaika pieza musikal sartuko dizkigu jarraian, fadoetatik hasi, rockera pasa eta halako musika mimetiko eta errepikakor batekin bukatzeko.

Hor ez da geratuko, ordea, Piddingtonen zuzendari lan traketsa. Zinegile britainiarrak denboraren kontzeptua galduko du haria eramateko orduan, ez bait da posible saldu zuen gizonaren arrebarren heriotza horrela gertatzea. Liburu idatzi zuelako jakin baldin bazuen protagonistaren helbidea eta semea ere orduan joan baldin bazen Portugalera, nola ez da azken hau usteko istri-puaz oharu?


Hamaika galdera daude filme mantso, zahar eta astun honen aurrean egiteko modukoak (liburuaren mamia, bilustasunaren sinbologia, musikaren erabilera), baina guztiak azken moralina txepel horren tajua izango lukete seguruenik. Hau da, bi ordu luzetan erakutsi digutena, errepikatu nahi ahal izatea memoriak bere zentsura propioa daukala esa-

tzionatzen du haurra protagonista den bitartean. Umorerako lizentzia batzuek ere hartuko ditu, eta aitoren heriotza nahiko surrealista bada ere, aitaren mekaguendios hotsa eta eskolako pasadizoak algarra xamurrez beteta daude. Momentu horretan, etxean gertatuko da tragedia, tragediaren oinarria eta tragediaren sorrera familia eta etxea besterik ez direlako, ez beste inor.

Filmeak zutik iraungo du lau horren barruan. Baina bigarren zatian aurre egiten dionean, etsaia baztertu duenean hain zuzen, pelikulak gainbehera latza izango du eta noraez ibiliko da. Zatiaren arteko iragana teknikoki bikain gaudu badu ere (pelikulako elipsiak zoragarriak dira, benetan), gidoiak ez dio hain aise utsiko hariari eta esne saltzailea azalduko den arte («gara benetako kezka ohartuko ez genduki hantxe hemendik, mutiko!»).

#### TRAGEDIA KANPORA ATERA

Filme erdia soberan egongo da hortik aurrera, tragedia kanpora aterako bait du Bajo Ulloak, komertzial izateko behar zuen metraia ditxosozkoa bere ahal izateko. Beti berdin... Basureroaren agerpena eta horrekin gertatuko diren egoera guztiak alferrik daude, hala nola etxetik kanpo gertatuko diren eszena den denak. Horretaz gain, aukera paregabeak galduko ditu pelikulari amaiera dotorea emateko (ama negarrez hasien denean, etxetik aldegitoko lehen ahalegina egiten duenean...), eta horregatik beharbada, bukaera anizdunen lana irudituko zaigu. Tragediak bazuen kokapenik lau horma haien artean, sinesgarria eta erreala zirudien, baina handik kanpo indar guztia galduko du, zoritxarrez. Tragedia desberdinen eraginak bilduko du azken batean tragedia nagusia. Zine asko dago tximeleten hegoetan, Juanmaren kamara batez ere. Pazientzia eta denbora behar dira, besterik gabe.



Alan Bates.

CARLOS VILLAGRAN

### Bates: «Ulertzen dut antzeztu dudana pertsonaia»


A.G. / DONOSTIA

«'Shuttlecock' agentearen izen klabea besterik ez da», azaldu zuen Andrew Piddington zuzendariak filmea bukatu bezain pronto Maria Cristina hotelean izaten den prentsaurrean. Koproduktzio britainiar-frantsesak ez zuen harrera onik edukirik kazetari eta ikusleen artean eta Alan Bates aktorea bertan ez balitz egon, ekitaldia ordu laurden baino lehenagoko bukatuko litzateke.

Pelikula gehiena hirurogeiko hamarkadako Portugalen dago kokatuta eta hainbat jende erabaki horren arrazoia galdetu zion zuzendariari: «Hiru arrazoigatik aukeratu du ordurako Portugal hura: batetik, protagonista arrotz sentituko litzatekeen herrialde bat hautatzeagatik; bestetik, herrialde faszista zelako; eta azkenik, Hego Amerikako edozein herrialde baino egokiagoa izango litzatekeelako europarrentzat». Portugalen kontuei utsiz, «garai hari buruzko informazio asko jaso nuen eta orain asko hobeto ezagutzen dut».

Filmeko erantzukizun gehienetsuena Piddingtonek daukan arren, Alan Bates izan zen prentsaurreko izarrik nagusiena atzokoan. Kazetariak ez zitoten hala ere Sail Ofizialean eskaini zuten filmeaz gehiegiz galdetu eta garai bateko antzezlanek hartu zuten solasaldiaren tarterik nagusiena. Nolanahi ere, «Shuttlecocken» pertsonaia desafioa izan da niretzat», aitortu zuen aktore britainiarrak. «Honelako presioa jasaten duen pertsonaia oso interesgarria izango da beti. Edozein rol betetzen duzuek ere, dena eman behar duzu, baina oraingo honetan askoz gehiago oraindik, pertsonaiak indarra zuelako batez ere», adierazi zuen Alan Batesek.

Aktoreak lau urte bakarrik zituen Bigarren Mundu Gerra hasi zenean eta ordutik gordetzen dituen oroitzapenak ez dira oso garbiak. Batesek ulertu egiten du berak antzeztu duen pertsonaiaren jokabidea, «aktore pertsonaiaren jokabidea, aktore bategiaren intuizioz konprenitu behar bait du bere pertsonaia. Koldarkeria eta ausardia biltzen ditu eta ikuspegi hura bere pertsonaia, ulertzeko modukoa da egiten duena».



Andrew Piddington CARLOS VILLAGRAN

nez eta traizioaren gizadasuna azalduz. «Momentu asko daude pertsona bat traidore bihurtzeko modukoak», aitortu zuen zuzendariak. Berak ere hobe zukeen ixilik egonda, espiek bezalaxe.